

a.1 TALDEA SORTZEN

> Aurkezpen eta konfiantza jolasa



Helburuak

- Talde-egitura sortzen hasia.
- Umeek elkar ezagutzea.
- Konfiantza hartzen hasia.

Prozedura

- Jolas bakoitzak bere azalpena dauka.
- Jolasak oso sinpleak dira eta ez dute zailtasunik hizkuntza aldetik. Kontuan izan behar dugu lehenengo egunetan egiteko pentsatuta daudela eta oraindik ikasleen maila oso baxua izan daitekeela.
- Ez dira zertan jolas guztiak egin behar. Era berean, hainbat egunetan egin daitezke. Konfiantza jolasak ikasturte guztian zehar planteatu daitezke.

Oharra

Hamar aurkezpen-jolas daude:

1. Pilota
2. Zu ta ni
3. Kaskarrekoa
4. Agur erraldoia
5. Amarauna
6. Izena-jarrera
7. Izen-kateak
8. Nire ezkerrean
9. Laranja-limoia
10. Pistoleroaren jokoa

Bost konfiantza-jolas daude:

1. Oreka
2. Itsua eta gorra
3. Noraezean
4. Aulkiaren jolasa
5. Asmatzaileak

- Ez dira zertan jolas guztiak egin behar.
- Hainbat egunetan egin daitezke.
- Konfiantza-jolasak ikasturte osoan zehar planteatu daitezke.